**ERREPORTAJEA** EZTABAIDA ARTEAN HASI DIRA APRAIZKO DEPURADORAREN LANAK
**GEHIGARRIA** SUSANA MUJIKARI ELKARRIZKETA · **KULTURA** "MAGOSTO" EGUNEKO EKITALDIAK

# BARREN
ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2002ko azaroaren 8a/X. urtea/423. zkia



# Apraizko depuradorak garbituko al ditu Deba ibaiko urak?

"INOREN LEPO ZIKINA IKUSTEN DOGU, GEUREA EZ" (esaera zaharra)

GARBIKETA • MANTENIMENDUA
AUTOEN ALOKAIRUA
Sigmako industrialdea - 7. eta 8. pabiloiak

MANTENDU EZAZU
ZURE AUTOA
GARBI ETA PREST!

GARBIKETA
2,50 €

KONPONKETA TAILERRA



AUTOGARBIKETA
MATIKO PUBLIKOA



MANTENIMENDU OROKORRA • OUO, BALAZTA
eta PNEUMATIKOEN ALDAKETA
BARRUKO GARBIKETA INTEGRALA

ARBIKETA
BEREZIA
4,50 €

GARBIKETA
LEHORKETA
ARGIZARIA EMATEA
3,50 €

SIGMAKO
INDUSTRIALDEAN
GAUDE



ZURE ORDENAGAILURK
ZINTZILIK UZTEN BRZRITU...

DEITU KZlaguntzara
Tel.: 902 544 545
www.kzlaguntza.net

**KZlaguntzak**, informatika orientazioko doako zerbitzu berriak, ordenagailuen munduarekin zerikusirik duen edozein zalantza argitzen lagunduko dizu.

ARRETA ORDUTEGIA
KZlaguntza
Igandetik ostegunera:
10:00etatik 22:00etara
Ostiral eta larunbatetan:
10:00etatik 24:00etara

aurrera doan
herria
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

eusI-sadi Ogun't

# BaRRen




## Publizitatea eta, gainera, euskaraz?

- 30 eurogatik publizitatea, egin daiteke BARRENen. Baina, orri osoko publizitatea egin nahi duenak, eta gainera koloretan, 240 euro edo 40.000 pezeta ordaindu behar du.
- Hamar urtean, aurten altxatu ditugu prezioak estreinakoz! Prezioek eta bizimoduak etengabe gora egin duten bitartean, guk bere horretan mantendu ditugu prezioak 9 urtean.
- BARRENeko aurrekontu osoaren %40a, gutxi gorabehera, publizitatetik lortzen dugu. Estreinako urtean ia 9 milioi fakturatu genuen, eta 2001ean 10 milioi eta erdi.
- Publizitatea egiten dutenen artean denetarik dago, baina sektore bat nabarmendu behar bada, eraikuntzaren hueltan dauden gremioak azpimarratuko ditugu.
- 350 merkatal-etxe inguru izan dira publizitatea egin dutenak. Elgoibar bezalako herri haterako ondo dago, ezta?

Eta zer diote publizitatea egiten dutenek? Zezen-Bide auto-eskolako arduradunarekin egon gara eta zera esan digu: "Herritarrei gure eskolaren berri emateko eta aldizkariari diruz laguntzeko egiten dugu publizitatea BARRENen. Herri aldizkaria izanik, Elgoibarko jendea gure auto-eskolara erakartzeko modu egokia iruditzen zaigu BARREN. Hilero orri erdiko publizitatea egiten dugu koloretan, beraz 1.500 euro inguru gastatzen dugu urtean"

Publizitatea eta, gainera, euskaraz? Bai, duela hamar urte hain arraroa zena gaur normal-normala da. Zuei esker. BARRENen publizitatea egitea eskaparate ona dela sinesten duzuen guztioi esker, alegia. Izan ere, euskaraz saltzeko deseatzen zaudete, haina ez daukazue euskara saltzeko. Esker mila denoi!!



## "ONU" berria Elgoibarren?

Orain Ermuaranbide kaleko etxeak direnei ONU deitu izan diegu luzaro, toki askotako jendea etarri baitzen garai batean Elgoibarren lan egin eta bizitzera eta bertako etxeetan kanpoko jende askok aurkitu zuelako bizitokia.

Nik txikitan ONU esaten nuen zentzu hori zuela jakin gabe. Ermuaranbide izena "ofizialdu" ondoren ahaztuta nuen hitza baina berriz ere burura etortzen hasi zait, zeren eta gutxi barru ONU berria izango dugu Elgoibarren, ziur naiz. Eta zergatik?

Arrazoia gure enpresetarako gazte faltan gaudela da eta herrian ez dagoela gazte nahiko enpresak hornitzeko, beraz, kanpotik ekarri beharko dugu jendea, horrela jarraituz gero.

Nahiz eta momentu honetan, oro har, egoera ez den onena, enpresek lanerako jendea eskatzen jarraitzen dute etengabe. Gure herrian, 3.000 lanpostu inguru dago makina erremintarekin zerikusia duena, hain zuzen ere. Bestalde, enpresa hauetako langileak izango diren ikasle kopurua gutxituz doa, eta batez ere fabrikazio arloan, behintzat nik ezagutzen dudan kasuan (IMHn). Ia ez dugu "kantera"-rik, futbolean esaten den bezala. Ikasle gehiago dago ingurukoa, herrikoa baino. Eta hala eta guztiz ere gutxi.

Ikasle kopuru murrizte honek enpresetako langile berritzeetan arazoak dakartza, eta teknologia berrietan prestatzen diren teknikari gazteen faltan aurkitzen dira.

Zentzu honetan enpresek, eskolek eta gurasook gure partetik jarri behar dugu, lan mota hau gazteei erakargarria ikus arazteko. Garrantzizkoa da ikastetxe ertainetako orientatzaileen lana ere, baita mundu industrialari begira familiak eman dezakeen kultura baikorra, lan prestakuntza mekanikoa, ikasketa eta lan irtenbide erakargarria, hurbilekoa eta garapen profesional anitz eman dezakeena dela ikusi arazteko.

Hala ere, nahiz eta zentzu honetan ahaleginak egin, jende gazte gutxi dagoela nabaria da. Bestalde, herrialde ezberdinetatik beharrak jota guregana hurbiltzen hasita daudela ere badakigu. Beraz, "ONU" berri bat gerta daiteke gure herrian... Ea gai garen hau guztia asimilatu eta etorkizun interesgarria lortzeko denon artean!

Edurne Bilbao

MOtZ MOtZ ........ 8
gehigarria ........ 13
kiRolAk ........ 20
aGenda ........ 24

2002-XI-8

### KAIXO ARRATE:

Zalantzarik gabe honelako esaldiak entzungo ditut: "Koitadua oso gaizki zegoen". Nola ez zen bada sentikor egongo gure neska.

Hala ere, nik, bizitzeko gogo izugarria dudan honek, ulertzen zaitut, honakoa irakurri nuen lehen aldian ulertu nuen bezalaxe: "Zorionekoak bizia uzten dutenak biziak berak utzi ditzan baino lehen".

Une jakin batean, zure burua eta bihotza mila zatitan hautsi ziren, eta zatiak elkartzea lan gogorra izan da zuretzat eta inguruan izan dituzun senide eta lagunentzat. Zurea bezalako kasuek zer pentsatua eman beharko ligukete eta bizi garen planeta hau zein den gogaikarria konturatzen lagundu.

Jendeak jakin dezan esan nahi dut, zure lainope hortatik argi asko egin didazula, bere burua koherente eta zentzuduntzat duten horiek baino gehiago. Argi izpi horiek une ilunotan ere nire barrua inoiz baino indartsuago argitzen dute.

Misquiko lagunok bihotzez eskertzen dugu zure ahalegina eta penaz naiz oraindik zozketako saria zuri egokitu ez zitzaizulako (barkatuko al dit Joxeanek?).

Ez zintuzket agurtu nahi, ezta geroarte batekin ere, nirekin baitzaude oraindik eta nigan izango zara nire haurren irriparretan.

Maite zaitut bihotza!

Gemma Agirregomezkorta
Misqui taldearen izenean

### LAGUN BATI

Iritsi da urteroko zita eta ohiko bihurtu dugunez, bildu ginen mahaiaren bueltan. Denak prest! Gure sukaldariak primerakoak, mahaikideak aldaezinak eta anfitrioia, berriz, ezinhobea. Eta hitz egin genuen lasai eta elkarren istorien tristurak konpartitu genituen eta baita topa egin ere, falta zirenengatik. Goibeltasunaren itzala pasatu zen une batez denon gogotik baina berehala gainditu genuen. Gehienbat zure irudia gogoratzean, beti irrifartsu eta alai ikusten zaitugulako.

Askotan pentsatzen dut, bizitza zeharkatzen duen tren honetatik ez zinela jaitsi, azaroaren 8ko geltoki hartan eta pareko beste bagOi baten jarraitzen duzula aurrera. Bakarrik zurekin bosteko bat trukatzea falta zait. Ez ahaztu present zaudela denon bihotzetan.

Muxu bat Sera.

I.A.
15.377.030

# Urruzunoren begi ezkutua

## Zorteduna



Beti pentsatu izan zuen ez zela zorteduna izan bizitzan. Sekula ez zen ezertan nabarmendu, sekula ez zitzaion saririk tokatu zozketa baten ere... Baina, egun batean, horri buruz zeukan iritzia guztiz aldatu zuen. Domu Santu Egunaren ostean, hain zuzen ere. Plaza Handitik presaka oinez zetorrenean, Madalako kruzean, aurrera egin zuen alboetara begiratu gabe. Bat-batean auto bat bere aurrean gelditu zen, ozta-ozta ez zuen harrapatu. Beharbada, bere aingeru goardakoak salbatu zuen. Akaso bai, baldin bazeukan. Kontua da beste halako hamar kasu gertatuz gero, zaila izango litzatekeela onik ateratzea. Baina zorionez berari ez zitzaion ezer ere gertatu, txiripaz. Ondoren, hileta-enpresako autoa pasatzen ikusi zuen. Oraingoan ez zen berarentzat, beste bati heldu zitzaion bere ordua.

Jon Eugi

ASTEKARIA
BaRRen

Nafarroa enparantza. 2
20870 ELGOIBAR
c• 943 74 41 12
Publizitatea:
c' 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maila:
barren@topagunea.com
Helbide informatikoa:
www.topagunea.conVbarren
ARGITARATZAILEA
Elgoibarko Narra

ELGOIBARKO ZARRA

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegii ZUZENDARIA Asier Orbea KAZETARIA Irati Agirreazaldegi, PUBLIZITATEA Amaia Erkizia MAKETATZAILEA Jaione Unanue ADMINISTRAZIOA Amaia Rodrigez GERENTZIA Jon Pefi UrigUell KOLABORATZAILEAK Jasone Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Juan M. Elustondo, Alberto Ansuategi, Edurne Bilbao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Ainhoa Andonegi, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T.. AZALEKO ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburutik INPRIMATEGIA Gedu Koop. E. TIRADA 4.025 ale LEGE GORDAILUA 53-1.038/92 ISSN 1139-1855

*Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Ahlundiak thruz fagundutako aldizkaria.*

zlrc kutxa
zur, eskel

1-DANOBAT
.OUINPS 11EPPAAIIENTA

SSGOITI
GRUPO DANORAT

ESTARTA



## ? GALDERAK

♦ Emakume batek adierazi digunez, "lurreko gorpuak ateratzerakoan, zer egin behar dugu hezurrekin? Ez al litzateke egokiagoa izango nitxo txiki eta merkeagoak eraikitzea errautsak sartzeko? Jendeak sarritan ez du jakiten errautsekin zer egin". Udalera jo dugu, eta esan digutenez, garai batean egon zen kolunbario bat egiteko asmoa, baina azkenean nitxo berriak egitea erabaki zuten. Momentuz ez dago nitxo txikiagoak egiteko proiekturik.



## X1,, ,,,;\ X

* Gazte batek esan digunez, Madalako bidegurutzean zebrabidea falta da: "Ikastolara joaterakoan auto ugari ibiltzen da, eta askotan ez dira gelditzen. Ikasle asko pasatzen da bertatik, eta oso arriskutsua da. Zebra bidea jartzea komeni da".

1r




• Noiz konponduko dituzte Elgoibarko parkeak? Gazte talde batek herriko parkeak oso egoera kaxkarrcran daudela adierazi digu, eta konpontzeko beharra dutela.
Udaletxera jo dugu, eta Albitxurin parke berria egiteko asmoa dutela esan digute, baina oraindik ez dago data zehatzik. Gainontzeko parkeak printzipioz ez dituzte berrituko.

Barrak, Birrak eta Barreak



# Apraizko depuradora

*Gipuzkoa mailan kutsadura handiena daukan ibaia da Deba. Enpresa eta etxebizitza asko dago ibai inguruan, eta zikinkeria ugari joaten da bertara. Depuradoraren helburua Deba ibaia garbitzea da, baina dirudienez ez dituzte ondorioak kontuan hartu. Ondorengo lerroetan alde eta kontrako ordezkarien hilzak bildu ditugu.*

Hasi dira Apraizko depuradora egiteko obrak. Proiektua beharrezkoa den arren, San Antolin eta Arriagako bizilagun eta enpresak ez daude konforme. Joxe Mari Leiaristirekin hitz egin dugu, eta auzokide guztien izenean zera azaldu digu: "Depuradora beharrezkoa da, baina Apraizen eraikitzea ez dugu ondo ikusten. Elgoibar eskualdeko kakaontzia bihurtuko da. Usain txarra herriraino iritsi daiteke. Mendaroko ospitaleko zikinkeria ere, Elgoibarrera ekarriko dute, eta gaixotasunak areagotu egingo dira. Arratoiak eta era guztietako intsektuak agertuko dira".

Depuradora ugari bisitatu dituzte, eta guztietatik ondorio bera atera dute: "Depuradora duten herrietan usain txarra dago". Helburua Debabarreneko ibaiko urak 30.000 mlo depuradoran garbitzea da eta oraindik ez dute azaldu zikinkeriarekin zer egingo duten.

Auzokideen irtenbideak

1. Deban (Iruroin) eraikitzea. Inguruan ez da inor bizi, eta Mendaroko urak Elgoibarrera bonbeatzea ebitatuko litzateke.

2. Apraizetik 300 metro gorago eraikitzea. Mendi artean ezkutatuta gelditzen da, eta kalteak arinagoak izango dira.

3. Depuradora estalita egitea. Usain gutxiago aterako luke, eta gas toxiko gutxiago kanporatuko lituzke.






*Apraizko depuradorak 28.500 ar\izango ditu eta 2004ko udaberrirako naitzea espero dute.*

Joxe Mariren hitzetan, "him aukerak baztertu egin dituzte, garestiegiak direla esanez". Irtenbideak proiektu eta aurrekontuekin aurkeztu zituzten Diputazioan, eta hasieran inbertsio handiagoa suposatzen bazuen ere, aurrera begira errentagarriagoa zen: "1.400 milioiko diferentzia zeukan hodiak Iruroineraino luzatzeak, baina aurrera begira, Mendaroko urak hona ekartzea garestiagoa da. Apraizera ere bonbeatu egin behar da, ura aldapan gora ez baita joaten".

Udalaren jarrera

"Elgoibarko Udalak bide guztiak ireki dizkio proiektuari, eta aldi berean ate guztiak itxi auzokideei. Hasteko Arau Subsidiarioak aldatu zituzten, Apraizeko lur industriala, landa lur bihurtzeko. Legearen arabera lur industrialean ezin da depuradorarik eraiki. Gainera, jabeei lurrak desjabetu dizkiete dirurik eman gabe. Gainontzeko herrietan proiektuari ezezkoa esan diote eta hemen gauza bera egin beharko lukete".

## "Depuradora duten herrietan usain txarra dago"

J.M. Leiaristi, **auzokidea**

Gure herria industriatik bizi da, depuradorak kalte handia egingo diola diote: "Depuradoraren inguruan lur industriala libre geldituko da, baina usain txarrarekin inork ez ditu enpresak eraikiko. Elgoibarko enpresak kanpora joateko arriskua dago. Enpresa garrantzitsuak daude Elgoibarren, eta atzerriko bisita ugari jasotzen dituzte egunero. Depuradoraren usainak, itxura eskasa emango digu atzerrian ere".

Depuradora eraikitzen hasi diren arren, Joxe Marik esan digunez, beraiek ez dira geldituko: "juizioa ez dakigu noiz ospatuko den, baina guk aurretik zerbait lortzea espero dugu, eta bestela eraikitzen dutenean ere borrokan jarraituko dugu". Ez dute eperik jartzen, baina depuradora gelditu arte ahal duten guztia egingo dutela azaldu digu.

## Mikel Zabala

### Foru Aldundiko lan hidraulikoen zuzendaria

# "Elgoibarkea da aukera guztietan egokiena"



***Gauza guztiak ondo joanez gero, 2004.urteko udaberrian Apraizko depuradora martxan egongo da. Lanak hasi dira dagoeneko, baina auzokideek ez dute proiektu hau ondo ikusten. Mikel Mendizabalekin hitz egin dugu, eta depuradoraren inguruko gora-beherak azaldu dizkigu.***

**Zergatik atu zenuten Elgoibar'.**

Kutsadura karga handiena bertan amaitzen da, eta geneuzkan aukera guztien artean egokiena iruditu zitzaigun. Zazpi aukera aztertu genituen: Mallabia, Ermua, Eibar, Soraluze, Elgoibar, Mendaro eta Deba. Helburua Deba ibaia garbitzea da, beraz, logikoagoa dirudi depuradora Deban eraikitzeak, baina gastuak ere kontuan hartu behar dira, eta askoz garestiagoa ateratzen zen. Kostuak garestitzea, herritarrentzat ere kaltegarria da. Gure helburua lortzeko aukerarik onena Apraizen eraikitzea da.

**Zein da depuradoraren helburua?**

Depuradora honekin Deba ibaiaren erdia garbituko dugu. Azken bi generaziotan ezagutu ez den bezala geldituko da ibaia. Arrantza, uretako kirolak praktikatu ahal izango dira, eta ibai ondoan bizi direnen egoera asko hobetuko da. Ibai guztia garbitzeko, Deba Goienan beste depuradora bat egin beharko da.

**Auzokideek diotenez, isilean aritu zarete lanean. Zer daukazu esateko?**

Auzokideek aurkeztutako eskutitzean azaltzen den moduan, atea jo duten leku guztietan erantzun zaie. Dirudienez jaso duten erantzuna ez zaie gustatu, baina ezin dezakete esan isilean aritu garenik.

**Usain txarra, arratoiak eta gaixotasunak sortzeko arriskua omen dago.**

Azpeitiko depuradoran 2000 haur izan ziren iaz, eta Elgoibarren ere bisitak antolatuko ditugu, haurrek depuradoraren funtzionamendua ikasi dezaten, eta bide batez, naturaren garbiketan kontzientziatu daitezen. Gaixotasun arriskuak eta toxikotasun handia egongo balira, ez genuen horrelakorik antolatuko. Bestalde, usain txarrak ez dauka justifikaziorik.

**Auzokideek planteatutako irtenbideak ez al dira bidezkoak?**

Planteamendu eta errekurtsoak berandu iritsi dira. Instituzioak duela bost urte hasi ziren depuradora egiteko proiektua antolatzen, eta auzokideak azken momentura arte ez dute ezer esan. Irtenbide hauek lehenago planteatu izan balituzte, zazpi aukera aztertu izan ditugun moduan, besteak ere aztertuko genituzke.

**Auzokideen irtenbide bat Deban (Iruroin ) eraikitzea da, Mendaroko urak honaino ekartzea ebitatzeko. Ez al litzatek**

Logikoagoa dirudien arren, aukera hori baztertu egin genuen. Zabalera eta luzera handiagoko hodiak sartu behar dira, eta askoz garestiagoa ateratzen da. Mendarok proiektu honetan garbituko den ur guztiaren %5a suposatzen du, beraz, ur kaudal hori Apraizko depuradorara ekartzea errazagoa eta merkeagoa da. Gainontzeko bi aukerak ere arrazoi berdinagatik baztertu genituen.

**Auzokideen errekurtsoak obrak geldiaraziko al ditu?**

Horren erabakia epaileak hartuko du. Gure aldetik gauzak ondo egin ditugu, eta azken erabakia Apraizko depuradoraren aldekoa izatea espero dugu.

**Deba ibaia garbitzeko ez al dago beste irtenbiderik?**

Guk ez dugu aurkitu.. Beste aukera bat, ibaia ez kutsatzea izango litzateke, baina hori ezinezkoa da. Etxe eta enpresa asko dago hemen inguruan, eta toki guztietatik iristen da zikinkeria ibaira. Bide egokiena depuradora da.

**Elgoibar eskualdeko zakarrontzi bihurtuko omen da. Zer esan dezakezu herritarrak lasaitzeko?**

Lehen aipatu dudan bezala, eskoletako haurrentzat txangoak antolatuko ditugu, eta benetan arriskutsua izango balitz, ez genuke horrelakorik egingo. Bestalde, depuradoran jendea arituko da lanean, eta beraiek bertan lan egin ahal badute, gainontzeko enpresak ere lasai aritu ahal izango dira.

### Depuradorea datutan

**Data:**
2004ko udaberria

**Kostua:**
**10.350.000 €**

**Tamainua:**
28.500 $m^2$

**Kapazidadea:**
1.562 litro segunduko edo 5.623 $m^3$ orduko

**Nongo urak garbituko ditu:**
Mallabia, Ermua, Eibar, Soraluze, Elgoibar, Altzola eta Mendaro

**Langileak:**
9 langile (nagusia, mantenimenduko arduraduna eta 7 langile)

# Ur, zabor eta Olasoko hilerriko zergak igo egingo dituzte 2003an

## Ordenantza fiskalek %3,5eko igoera izango dute bataz beste

Joan den ostiralean ezohiko plenoa izan zen udaletxean eta ordenantza fiskalak izan ziren batzarreko gai nagusia. 2003an zergek %3,5eko igoera izango dute. Igoera batazbestekoa da. Izan ere, urari, zaborrari eta Olosoko hilerriari dagozkion zergak ezberdinak dira. Ur partzuergoak %12ko igoera proposatu zuen eta Debabarreneko Mankomunitateak %20,40koa, baina EAJ eta EA alderdiek zergen igoera txikiagoa izatea erabaki dute: %10,6 urarena eta %11 zaborrarena. Olasoko hilerriari dagokionez, zerbitzuaren kostua handia da eta diru sarrerak, berriz, urriak. Ondorioz, azterketa baten ostean zergak igotzea erabaki dute 25 urteren buruan kostuei aurre egin ahal izateko.

### Batasuna aurka

Batzarrean EAJ, EA eta PPren aldeko botoekin onartu egin zen zergen igoera, baina gainontzeko alderdiak ez ziren guztiz ados azaldu proposamenarekin. PSE-EEko Ovidio Campeyoren esanetan, "zergen igoerak IPCaren azpitik edo maila berean egon behar luke". Beraz, IPCaren gainetik dauden zergei ezezko botoa eman zieten PSE-EE alderdiko zinegotziek.

Batasunak aldiz proposamen guztiei egin zien uko. "Zergak herritarren maila ekonomikoari jaramonik egin gabe igo dira, eta azken bi urteetan hori aztertzeko partida bat proposatu arren ez da aurrera atera egitasmoa", esan zuen Asier Zengotita zinegotziak beraien ezezkoa arrazoituz.

Zergak %3,5ean igoko badira ere, IPCa %4ra iritsiko dela uste dutenez, aurreikuspenak ez direla beteko esan zuen Ogasun Saileko Marivi Agirregomezkorta udaletxeko zinegotziak. Beraz, Udalaren baliabide ekonomikoak gutxitu egingo dira zergen bidez diru gutxiago jasoko baita.



*Debabarreneko Mankomunitateak zaborren zergak %20,4 igotzea proposatu arren, Udalak %11 igoko ditu.*

# 20 lagunek egin zieten ongi etorria Elgoibarren Askatasunaren Urratsak martxari




*Sigmako zubitik sartu ziren martxistak manifestazioan.*

skatasunaren Urratsak izenburupean iheslarien ldeko martxa egiten ari dira hainbat lagun Euskal Herrian zehar. Asteartean, hilaren 5ean martxistak Elgoibarrera iritsi ziren eguerdiko 14:00ak inguruan. Sigman 20 lagunek egin zuten bat martxarekin eta herriko hainbat kaletan manifestazioa egin ostean Plaza Handian preso eta iheslarien aldeko idatzi bat irakurri eta aurreskua dantzatu zieten ibiltariei. Bertan Uruguain diren eskualdeko hiru iheslarien egoera gogorarazi zuten, tartean Altzolako Josu Larizena eta Mikel Ibañez elgoibartarrarena. Josu Lariz iazko azaroan atxilotu zuten eta espetxean egon ondoren uztailean berriz atxilotua izan zen Espainiaren estradizio eskaera zela-eta. Ekitaldia amaitu ondoren, Kimetz elkartean bazkaldu eta Azpeitiara abiatu ziren oinez. Eguneko etapa Azkoitian amaitu zen ekitaldi politikoarekin. Martxa bihar larunbata Baionan bukatuko da.



## Gorka Rejilek Euskal Herriko Txistulari Taldeen Lehiaketa irabazi du Gastekko bandarekin

Euskal Herriko Txistulari Taldeen Lehiaketa jokatu zen Errenterian. Bertan Gasteizko Udal Txistulari Taldea izan zen irabazle eta talde honetan atabala joz parte hartzen du Gorka Rejil elgoibartarrak, Bederatzi talde aritu ziren lehian finalean "Errenteria Hiria" kultur gunea bete zuen publikoaren aurrean. Obra libreetan aurkeztutako zailtasuna eta aberastasuna azpimarratu zituzten epaimahaikideek.

## Fernando Bert elgoibartarra atxilotu dute Frantzian

Frantziako Poliziak bi gazte atxilotu zituen astearte goizean Agen-go (Frantzia) tren geltokian, eta ETArekin lotura dutela leporatu diete. Poliziaren arabera, atxiloketa unean pistola bana eta Espainiako nortasun agiri faltsuak zeramatzaten. Fernando Bert da atxilotuetako bat, 34 urteko elgoibartarra. Polizia iturrien arabera, Fernando Bert Donostia Komandoko kidea da eta martxoan ihes egitea lortu zuen talde hau desegin zutenean. Atxiloketaren aurka protestatzeko asteazken iluntzean manifestazioa izan zen Elgoibarren.



## Luis Gomez izango da hemendik aurrera Soraluzeko parrokoa

Lau urtez Elgoibarren lanean aritu ostean, Luis Gomez apaiz oñatiarrak Soraluzeko parrokiaren ardura hartu du. Bertan parroko lanak egingo baditu ere, Elgoibar ez du albo batera lagako. Izan ere, goizero meza emango du astegunetan eta gazteekin ere arituko da. Bestalde, San Bartolome Egunetik Donostiako Antton Etxebeste diakonoa dago Elgoibarko elizan. Luis Gomezek esan digunez, Benantzio Otegi eta Antton Etxebesterekin Soraluze eta Elgoibarko parrokien arteko elkarlana bultzatzea da beraien asmoa.





## Sallobente Elkarteak Caritasi eman dio jaietako zozketako saria

Ohikoa izaten da herriko bailaretako jaietan zozketa egitea eta zozketa horrek saridun bat izatea. Sallobenten udan txekorra zozketatu zuten, baina zenbaki sarituaren jabea ez da agertu. Hori dela-eta txekorraren balioa dirutan ematea erabaki dute. Dirua ez diote gero edozeini eman. Behartsuei laguntzen aritzen den Caritas Elkarteak jaso du 1204 euro (200.000 pezeta) euroko txekea.

## Merkatu Plazako dendariek 60 euroko 4 sari banatu dituzte

60 euroko 4 sari banatu dituzte hilabete honetan Merkatu Plazako dendariek. Sarituak argazkiko lau emakumeak dira: A. Sebastian, A. M. Gomez, J. Alvarez eta P. Goenaga. Saria erosketa txeketan jasoko dute eta Merkatu Plazan gastatu beharko dituzte. Datorren hilabeteko zozketako saria bi lagunentzako afaria izango da.



### Tratu txarrak jasan dituzten Gipuzkoako 25 adingabeko familiaren batek hartzeko zain daude

# PREST AL ZEUNDEKE TRATU TXARRAK JASAN DITUEN HAUR BAT ET)(EAN HARTZEKO?



**JOSE LUIS AIZPITARTE**

**38 urte, altzari egilea**

Ni bakarrik bizi naiz eta nire burua zaintzearekin nahikoa daukat. Hala ere, ongi iruditzen zait aukera eta erraztasunak dituenak adingabe horiek familian hartzea.

**MARIA MENDIETA**

**34 urte, etxekoandrea**

Bai, umeentzat oso garrantzitsua izango litzateke. Haurra zenbat eta nagusiagoa izan arazo gehiago ekar ditzake, gauza txar asko bizitakoa baita. Baina laguntza behar dute eta emango nieke.





**PILAR PEREZ**

**70 urte, etxekoandrea**

Oso nagusia naiz ni ume bat etxean hartzeko, horretarako osasunez ere hobeto egon beharko nintzateke. Gazteagoa banintz egingo nuke, ondo iruditzen zait- eta ahal dutenek laguntzea.

**ROBERTO AGEA**

**30 urte, peoi espezialista**

Ahal izanez gero bai, baina orain ezinezkoa zait. Tratu txarrak jasotzen dituzten inguru horretatik ateratzeko edozer gauza egingo nuke, laguntza behar dute eta.





**MARI CARABALLO**

**47 urte, etxekoandrea**

Bai, oso gustura hartuko nuke, baina betiko niretzat izango dela ziurtatuko balidate. Entzun ditut kasuak behin kariñoa hartutakoan haurra kendu dieten familiena eta hori ez nuke onartuko.

**ANDONI EGIAZABAL**

**61 urte, jubilatua**

Denbora baterako, gauzak konpondu artian, hartuko nuke etxian, baina betiko hartzia konplikaua iruditzen jata. Gainera, azken erabakixa juezek dake, eurek esan bihar dabe zeinek dakan kulpia.



Cordon,Vilarchao, c. .

DEKRZIP

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK,
SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK,
GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.

San Roke , 7 behea. Tel: 943 74 28 74-74 05 70

URKIDI AHOLKULARITZA

KONTABILITATE
LAN
FISKAL

Kalamua, 12 • ELGOIBAR
Tel-Faxa: 943 74 18 91

,THE
riARTFORD
ASEGURUAK

2002-XI- 8

# nola ALDATU diren gauzak






**1963.** urtekoa da erretratu hau. Madalako ingurunea ikusten dugu argazkian. Madalako elizak aterpe dotorea zeukan garai hartan. Jende askoren tertulia gunea zen aterpe hau. Elgoibar betidanik izan da urak asko eragin dion herria, eta urte hartan ere ufalak izan ziren. San Lorentzo errekak gainezka egin, eta ur mordoa pilatu zen Madalan. Trafiko seinaleak ere, gaur egungoen aldean oso desberdin ageri dira. Azkoitiko errepide nagusia bertatik pasatzen zen, eta trafiko handia pilatzen zen paraje honetan. Argazkian ikusi ez an¯en, erreminta makina ederrak egiten zituzten lantegi asko zegoen auzoan. Madala mugimendu handiko auzo ospetsua izan da beti.

**2002.** urte amaiera honetan, oso desberdin ageri zaigu ingurune hau. Elizako aterpe hura dagoeneko ez dugu ikusten, eta trafiko seinaleek beren kartel propioa dute errepidean. Bestalde, Azkoitirako errepide berria egin zutenetik, askoz auto gutxiago ibiltzen da Azkoitiko errepide zaharrean. Madalako auzoa asko handitu da azken urteotan. Etxebizitza berri ugari eraiki dituzte, eta herriko puntu garrantzitsua bilakatu da. Gaur egun gure herrian martxa handiko parajea da Madala. Gazte jende ugari ibiltzen da asteburuetan hemengo tabernetan. Batzuk berrituta daude, eta beste taberna asko berriak dira. Madala herriko erdigunea dela esan daiteke.

Juanito Gorostiza



*ESKERTZA*

*2002ko urriaren 9an, 75 urte zituela hil zen*
*IGNACIO OÑEDERRA IRURETAren sendiak,*
*bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak,*
*hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



*I. URTEURRENA*

*2001eko azaroaren 11n, 74 urte zituela hil zen*
*MARIA OSORO BARRENETXEAren sendiak,*
*bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak.*

# URRIA

Atal honetan zuen seme alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu BARREN astekarira 943 74 41 12 telefonora edo bidali e-postaz barren@topagunea.com helbide elketronikora.

## JAIOTAKOAK



Danel Zubizarreta Altube
Urriak 5
Josu eta Miren-Nekane



Jokin Vicente Gonzalez
Urriak 8
Guillermo eta Maria



Markel Sanchez Fernandez De Jauregi
Urriak 3
Manuel eta Beatriz



Julen Elkorobarrutia Muñoz
Urriak 10
Juan Ignacio eta Maria Teresa



Unai Eguren Arregi
Urriak 18
Jose Alberto eta Maria

## HILDAKOAK

Encarnacidn Alberdi,
94 urte, urriak 1
Maria Ignacia Arostegi,
81 urte, urriak 3
Martina Santos,
84 urte, urriak 4
Teodora Arrieta,
87 urte, urriak 4
Santiago Osoro,
86 urte, urriak 7
Francisco Eizagirre Aranburu,
89 urte, urriak 7
Abdon Ansola,
74 urte, urriak 15
Consuelo Jimenez,
74 urte. urriak 19
Juan Armendia,
82 urte, urriak 27
Alfonso Arnaiz,
75 urte, urriak 27
Arrate Garate,
42 urte, urriak 28

## ELKONTZAK

Gorka Sastre eta Nuria Estarta
Urriak 4
Jose Carlos Cortizo eta Eva Rodriguez
Urriak 5


ETXEBERRIA_
all~1111~1ffir 4411~1~

Fifieta zerbitzua
OSOA eta 24 ORDUKOA

*KUTXAK • TRASLADOAK .KOROAK*



NORBANAKOEI eta KONPAINIEI zuzenduriko zerbitzuak.

Donostia eta probintziako erietxe zentroetan ere bai.

Santa klara, 14 20 870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56
(Mobila) 608 77 07 01

BARREN
ASTEKARIA
2002ko azaroa/X. urtea/423. zkia
GEHIGARRIA · HILEKO ELKARRIZKETA
12

# elkarrizketa



**BARRENEK 10 URTE BETEKO DITU GABONETAN ETA EUSKADI IRRATIAK 20 AZAROAN. BARRENEKO KAZETARI BAT EUSKADI IRRATIKO KAZETARI BATEKIN IZAN DA HIZKETAN. SUSANA MUJIKA ELGOIBARTARRA DA BERA, ELKARRIZKETATZAILE IZATETIK ELKARRIZKETATU POSTURA PASA DENA. IRRATIAREN URTEURRENA ATZAKIATZAT HARTUTA PRESTATU DITUZTEN "20 URTE OPARO" ELKARRIZKETA SAIOEN GIDARIA DA BERA. ERA BEREAN LAURETAN BABEL SAIOKO AHOTS EZAGUNA.**

## Susana Mujika

" ENTZULEEI EZ DIET AURPEGIRIK JARTZEN ETA EZAGUTUTAKOAN SORPRESAK HARTU DITUT"

# Susana Mujika

## "Entzuleek txikia, g

*31 URTE, LOGROÑON JAIOA, ELGOIBARREN HAZIA ETA BILBO ETA LONDRESTIK JIRA EGIN OSTEAN, ORAIN DELA 11 URTE DONOSTIARA JOAN ZENETIK BERTAKOTUA. 11 URTE IRRATIA1V: EUSKADI GAZTEAN HASI ETA EUSKADI IRRATIRAKO SALTOA EMAN ZUEN GERO. TELEBISTA ERE PROBATUTAKOA DA. BERE AHOTSA BATEK BAINO GEHIAGOK ENTZUN IZAN DU INOIZ IRRATIAN ETA AHOTS HORRI HITZAK ETA IRUDIAK JARRI DIZKIOGU GUK. SUSANA MUJIKAREN AHOTSAREN ATZEAN NOR EZKUTATZEN DEN ERAKUTSIKO DIZUEGU. BERAREKIN IZAN GARA HIZKETAN HAMAIKA URTE HAUETAN IRRATIAK EMAN DIZKION HAMAIKA KONTURI BURUZ.*



1 Txikitan kazetari izan nahi al zenuen?

Institutuko garaian fisioterapeuta izan nahi nuen, baina kazetaritza beti gustatu izan zait, batez ere irratia. Inati entzule fina izan naiz txiki-txikitatik. Irratiarekiko bulimia dudala esan izan dut nik beti. Ez dut nire burua egunkari batean idazten ikusten. Beraz, kazetaria baino irrati esataria naizela esango nuke.

Txikitako garaiak nola gogoratzen dituzu?

Oso garai atsegina izan zen niretzat. Elgoibar kalean bizitzeko herria da. Arazorik gabe irten, jende guztia ezagutu...Orain Donostian bizi naiz eta herri giro horren falta somatzen dut; baita Elgoibarko euskararen falta ere. Hainbeste urtez kanpoan bizi ostean, piskanaka galdu egin dut.

Nolatan hartu zenuen Elgoibartik joateko erabakia?

Bilbora kazetaritza ikastera joan eta bigarren mail an arazoak izan ziren. Hilabete batzuetan klaserik izango ez zela ikusita Londresera joan nintzen ingelesa ikastera. Handik bueltatuta Euskadi Gaztean hasi nintzen eta erabaki gogor bat hartu behar izan nuen: Donostiara bizi izatera joatea edo lana lagatzea. Donostiara joan eta ordutik pisuz pisu nabil alde batetik bestera. Etxetik alde egin, lan munduan gazterik sartu... Beldur piska bat banuen, baina aukera ona egin eta ez naiz damutzen.

1 Orain zein lotura duzu Elgoibarrekin?

Loturarik handiena nire familia da eta Elgoibarrera ahizpa eta gurasoak ikustera joaten naiz batez ere. Dena dela, beraiei eta lagunei beti esan izan diet distantzia bera dagoela Elgoibartik Donostiara eta Donostiatik Elgoibarrera. Bizitza pertsonalak beste leku batera eraman nau eta konplikatua da berriz bueltatzea.

1 Euskadi Gaztean hasi zinen. Gerora zein beste lanetan aritu zara?

Euskadi Gaztean lau urte egin nituen. Niretzat oso eskola ona izan zen. Musikaz asko ikasteaz gain, inprobisatzen ere ikasi nuen, soltura hartzen. Bitartean lkimilikiliklip telebista saioan agerpen txiki batzuk egin nituen. Gero Euskadi Irratian goizeko programa egiteko eskaintza luzatu zidaten. Erronka handia izan zen. Gaueko txandan lan

# ena eta morena imajinatzen naute"

egiten nuen eta bizimodua aldatzen da, lagunekiko harremana asko galdu, beste bizitza erritmo bat hartzen da. Era berean egin dudan programarik atseginena izan da, goizeko entzulea oso fidela baita. Etapa honek nire burua gehiago ezagutzeko aukera eman zidan.

**I Ondoren, Lauretan Babelen hasi zinen, ezta?**

Gure saio kuttuna dela esan dezaket. Proiektu berria zen, lau pertsonarekin 3 orduko programa egitea erronka handia da. Baina erronkari aurre egiteko ilusioak talde giroa sortu zuen gure artean eta saioak iraun badu horregatik izan da.

**Zein saiotan aritu zara gusturen?**

Guztiek izan dute berea. Euskadi Gaztean oso gaztea nintzelako. Goizeko programan, batzutan bakarrik egon arren sentsazio bereziak jaso nituen eta Lauretan Babelen lagun onak egin ditudalako. Era berean, jende eta istorio interesgarri asko ezagutu dut. lkimilikiliklipek, berriz, beste medio bat ezagutzeko aukera eman zidan.

**'IRRATI ENTZULE FINA IZAN NAIZ IRRATIAREKIKO BUUMIA DUT"**

**I Zer erakutsi dizu irratiak?**

Irratia unibertsitatea izan da niretzat. Jendearekin tratatzen, besteen errespetua irabazten edo galtzen, umore txarra beharrezko denean bakarrik ateratzen... ikasten da. Baliabide asko jarri dituzte nire eskuetan eta elkarrizketak egiten, musika entzuten, ikasten eta espresatzen ere ikasi dut.



***20 urte oparo* saioa egin duzu. Nolako esperientzia izan da?**

Euskadi Irratiak azaroan 20 urte beteko ditu. Hori dela-eta irrati eta telebistarako elkarrizketa saioak grabatu ditugu Euskal Herriko 20 pertsonaia ezagunekin. Esperientzia berezia izan da dena nire esku utzi dutelako: Elkarrizketatuekin kontaktatzea, elkarrizketa prestatzea eta elkarrizketa bera. Gugandik urruti somatzen dugun jendea da eta beraiek pertsonallci ezagutzeko aukera izan dut. Konplikatuena bikoteak elkartzea, izan da, baina lortu dut.

**Ikusten eta entzuten al dituzu zure saioak?**

Irratian sartu nintzenean erakutsi zidaten gauza bat, norbere burua entzuten ikastea da. Prestatutakoa eta aireratutakoa ez. bada gauza bera ,norberak izan behar du hori Icritikatzeko ahalmena. Horretarako taldean autokritika egiten saiatzen gara. Telebistan nire burua ikustea gogorra egiten zait, lotsa sentitzen dudalako. Irratian keinu asko egiten ditugu.Etxekoek telebistan eskuak asko mugitzen ditudala esaten didate.

**Lanak jende ezagun asko elkarrizketatzeko aukera eman dizu. Bereziki gogoan duzunik ba al da?**

Sorpresa handia hartu dut Pedro Migel Etxenikerekin. Agian aurrez ezagutzen ez nuelako izan daiteke. Nazioartean hainbesteko oihartzuna duen pertsona hain azkarra izanik, harritu egin nau zein apala, ironikoa, dibertigarria eta gertukoa den ikusteak. Bestalde, gogoan dut Jon izeneko gizon itsu bati egindako elkarrizketa, oso berezia izan zen. Lauretan Babel saioan euskaltegien arteko txapelketa egin dugu eta hor ezagutu ditugun euskaldun berrien ahalegina ere kontuan hartzekoa da.

**Elkarrizketatuak aipatuta, entzuleak nola imaginatzen dituzu?**

Ez diet aurpegirik jartzen. Euskadi Gaztean ari nintzenean entzule gutxi batzuk ezagutu nituen eta orain gutxiago. Dena dela, sorpresa handiak hartu ditugu bai beraiek eta baita nik ere. Entzuleek txikia, gizena eta morena naizela imaginatzen dute.



**I Nola ikusten da Elgoibar Euskadi Irratitik?**

Elgoibar distantziatik ikusten dut, baina ez dago sekreturik, beraz, beti kontatzen didate herriko berri etxekoek. Baina albisteetan apenas entzuten dut horko notiziarik. Hala ere, ez dakit ez den ona, gehienetan herrietako albisteak txarrak izaten baitira.

**"IRRATIA UNIBERTSITATEA IZAN DA MRETZAT"**

**I Irratian denbora asko ematen duzu egunero lanean. libre geratzen zaizun denbora zertarako aprobetxatzen duzu?**

Hizkuntzak ikasteko. Esaterako, orain kapritxoz portugesa ikasten ari naiz. Lanetik etorri, afaldu eta pisukideekin lasai hitz egiten egotea ere atsegin dut, baita paseatzea eta irakurtzea ere. Sukaldaritza ere asko gustatzen zait. Asteburua bidaia txikiak egiteko eta Donostian ibiltzeko aprobetxatzen dut gehienetan.

**I Aurrerantzerako proiekturik ba al duzu?**

Erronka handi xamarra dut esku artean, baina aktoreek esan ohi duten moduan, oraindik ezin dut ezer aurreratu. Euskadi Irratian jarraituko dudala besterik ez dut esango. Beraz, jendeak entzuten jarraitu beharko du, enunka hori zertan datzan jakiteko.



## besteen ahotan



Susana Mulika eta bere familiarekin ere spaldi dauka harremana. Ainhoari Susanari buruz hitz egiteko eskatuta, beraz, hitz politak baino ez dizkigu esan. "Betiko laguna dut Susana, eta gainera, behar izan dudanean aldamenean egoten jakin duen horietakoa". Lagun moduan Susanak egindako lana jarraitu duela erakutsi digu Ainhoak eta baita langile fina dela esan ere. "Kazetaritza bezalako mundu batean berak lortu duena lorizeko egin duen lana baloratzeko modukoa da. Lanean ausarta eta argia izanez iritsi da orain dagoen lekura. Baina batez ere bere lana bihotzez egin duelako, irratiko lana maite duelako".

# informazioa

## Farmazia - okindegia

| | EGUNEZ | GAUEZ |
|---|---|---|
| 8 | Ibañez | Ibañez |
| 9 | Bidasolo | Bidasolo |
| | Bidasolo | Bidasolo |
| 11 | Etxeberria (Santa Ana kalean) | Etxeberria |
| 12 | Fernandez | Fernandez |
| 13 | Yudego | Yudego |
| 14 | Zabaleta | Zabaleta |
| 15 | Etxeberria (Errosario kalean) | Etxeberria |

**FARMAZIAK**

ESCALA, Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38
FERNANDEZ,
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42
ZABALETA, Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84
"eguerdiko 2ak arte

**OKINDEGIA**

**10 igandea Doña Mercedes**

## Eusko

ALTOBUSAK

DONOSTLA-BILBO
Egunero
Donostia:\shsA 5.45 06.45... 20.45
Elgoibar 07.02 08.02.. 22.02
* jaiegunetan 7.43ean hasiko dira

BILBO-DONOSTIA
Egunero
Bilbo 06:00 7.00... 20.00
Elgoibar 07.23 08.23... 21.23
jaiegunetan 8.00etan hasiko dira

MENDARO-ELGOIBAR
Egunero
Mendaro 0750 08.50... 21.50

ELGOIBAR-MENDARO
Astegunetan
Elgoibar 07.25 08.25 10.25... 21.25

Jaiegunetan
Elgoibar 08.25 09.25 10.25... 21.25

## PESO AUTOBUSAK

**LARUNRAT GAUA**

EIBAR-ONDARROA

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Eibar | 00.30 | 02.30 | 04.30 | 06.30 |
| Elgoibar | 00.40 | 02.40 | 04.40 | 06.40 |
| Deba | 00.50 | 02.50 | 04.50 | 06.60 |
| Mutriku | 00.55 | 02.55 | 04.55 | 06.55 |
| Ondarroa | 01.05 | 03.05 | 05.05 | 07.05 |

ONDARROA-EIBAR

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Ondarroa | 23.30 | 01.30 | 03.30 | 05.30 |
| Mutriku | 23.40 | 01.40 | 03.40 | 05.40 |
| Dcba | 23.45 | 01.45 | 03.45 | 05.45 |
| Elgoibar | 23.55 | 01.55 | 03.55 | 05.55 |
